

Agirrezabala ziklista goratuz

Abraham Peñak egin dio omenaldia ▶ 4




Tolosa Bizirik-ek exijitzen dituen aulkiak hartu ditu sinbolikoki

BATZARRA ▶ Batzarrean zinegotzien aulkietan eseri ziren; alkateak bertan behera utzi zuen batzarra ▶ 2



Tolosako Bizirik-eko bost zerrendaburuak udaletxeko batzar aretoko aulkietan eserita. LEIRE MONTES



Anton Abadia saria jasoko du gaur Tinko elkarteak

ALTZO ▶ Filmak euskaratzen ditu; Marian Galarraga eta Jaione Galarraga altzotarrak eta Eli Zabaleta anoetarra dira kide ▶ 5



Guraso Eskola jarri dute martxan Berastegin ▶ 6

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KAPRITXO**k oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu

KAPRITXO

Landabeikoa z/g • LEITZA
Tel.: 948 51 09 94



POLITIKA ▶

«Betetzen ditugun eserleku hauek guri dagozkigu»

Tolosa Bizirik-eko ordezkariak beren eserlekuak exijitu zituzten, atzo, ekimen sinboliko baten bidez; egitekoa zen udalbatzarra bertan behera utzi zuen alkateak



Ekzer-eskuin: Iban Ortiz, Begoña Aldalur, Antton Izagirre, Hektor Espin eta Aitor Izueta, atzo. L.MONTES

LEIRE MONTES

«Azken udal hauteskundeetan emandako boto guztien arabera» dagozkien eserlekuak hartu zituzten atzo Tolosa Bizirik-eko (TB) udal ordezkariak. Udalbatzarra zen egitekoa, eta osoko bilkura hasi baino lehen eserlekuetan ziren, zain. Jokin Bildarratz alkatea udalbatzar aretora sartu, Antton Izagirre alkate ohi eta TB-eko hautagaiarekin solasean aritu, eta segituan atera zen. Idazkariak ere beren gauzak hartu eta aretotik atera ziren. Bertan behera utzi zuten osoko bilkura.

Herri plataformako udal ordezkariak, baina, aretoan jarraitu zuten. Haien esanetan,

«ez dute ez aurkeztu dugun mozioa ez gaiak gurekin eztabaidatu nahi. Udal honek ez du gurekin mahai honetan eseri nahi. Esan diegu osoko bilkura egin nahi badute guk tartean egon behar dugula. Eta ezetz esan digute».

TB-koen iritziz, «gaur gertatutakoa orain arteko egoeraren isla» da: «Orain arte jarritako baldintzak bete ditugu. Bidegabekeria elkarrizketa bidez konpondu nahi izan dugu behin eta berriro. Isilik ez, baina egungo hainbat zinegotzi legitimoak ez direla jakinda ere, denbora eman diegu guk bostok dagokigun tokia bete dezagun. Eta ez dute ezer egin».

Urtebete eta erdi pasatuta,

eta erantzuna eta jarrera aldaketa itxarroteaz nekaturik, ekimen sinbolikoa egin zuten atzo herri plataformakoek, eskaera Udalera eramanez: «Gu hutsaren hurrena bagina bezala tratatzen utz dezaten aldarrikatu nahi dugu gaurko ekimenarekin. Dagokiguna ematea exijitzen dugu. Gu ere Udalaren parte gara, eztabaidatu nahi dugu. Betetzen ditugun eserleku hauek guri dagozkigu».

Osoko bilkuran eztabaidatzea zen mozioan ere islatu zuen eskaera hori TB-ek. «Udal hauteskudeen emaitzen arabera talde bakoitzari dagozkion zinegotziaren banaketa berria egitea, modu ez zilegi batean zinegotzi postua dutenek

dimitzea, gure bost zinegotziak Udalean sartu bitartean taldeak lokal ekipatua eta dagokion diru laguntza jasotzea, eta plataformako udal ordezkariaren iritziak akordioetan isla izatea» jasotzen zituen mozioak.

Herritarren babesa

Herritarren babesa jaso zuten atzo herri ekimeneko udal ordezkariak. Orain arte ere, «Udalari bidegabekeria honekin amai dezan eskatzeko», hainbat ekintza antolatu dituzte: «Hauteskundeetan 2.500 herritarrek eman zioten babesa gure taldeari. Egoera demokratiko batean izango bagina, bost zinegotziok hemen egon beharko genuke. Herritarrek, kezkatuak, sinadurak bildu eta bidegabekeriari irtenbidea eman nahi izan diote. Eta eskerak eman nahi dizkiegu».

Era berean, egoera konpontzea «denon ardura» dela azaldu zuen TB-ek: «Ematen ari den ez zuzentasun eta ez legitimitasun hau salatzea eta dagokiguna defenditzea ez da soilik gure ardura, herritarren gehiengoarena ere bai».

Ekimenak antolatzeari eutsiko diotela eta Udalak «tolosarren interesei eragiten dien dietik» jarraituko dituztela esan zuten, tinko, udal ordezkariak.

GERTAKARIA ▶

Hiltegitik ihes egindako zekorra tiroz hil dute

Zekor batek Tolosako hiltegitik ihes egin zuen atzo, 07:00ak inguruan, kamiioi batera sartzeraz zihozazenean. Larra mendiko kalera abaitu zen animalia, eta Ertzaintzak N-1 errepidea itxi zuen; herri gurea sartu zenean, Gorriti parean, tiroka hil zuen Ertzaintzak, «oinetakoak eta autoak arriskuan jartzen zituelako».

KULTUR ASTEA ▶

‘Fahrenheit 9/11’ filma Otsabi elkartean

Atzo hasi zen Izaskun auzo elkarteak antolatutako Kultur Astea Txente Rekonoren hitzaldiarekin munduko desorden berriaz. Gaur 19:00etan *Fahrenheit 9/11* filma ikus ahal izango da eta bihar munduko desorden berriaz mahaingurua izango da, herrialde desberdinetako ikuspegitik. Bi ekitaldian 19:00etan Otsabi elkartean izango dira.

DEIALDIA ▶

Pagoetara irteera igandean, Irazkik antolatuta

Irazki elkarte kulturantzak Pagoetara irteera antolatu du iganderako. Iturraran parke museoan, lorategi botanikoa eta Agorregiko burdinola eta errotak bisitatuko dituzte txangoan, Aiako kaleak eta interes handiko eraikuntzak. Eguraldi ona eginez gero, Pagoetako atsedenelekuan bazkalduko dute; bestela, Aiako frontoian. Irteera 09:00etan izango da, Santa Klaratik. Izena eman nahi duenak 607 85 50 64ra deitu behar du.

GAZTERIA ▶

Txotxongilo lehiaketak aurrera jarraitzen du

Gaztegunek antolatutako —eta ez Gazte Topaguneak, HITZAK argitaratu zuen bezala— I. Txotxongilo Lehiaketak aurrera darrai. Oinarriak Kultur Etxean lor daitezke, eta bertan eman daiteke izena. Gazte Topagunea Kultur Etxeko hirugarren solairuan egongo dela gogoratu dute.

Asteburu berezia Kirikiñok

AISIALDIA ▶ Asteburu berezia bizi izan dute Kirikiño aisialdi taldeko gaztetxoek eta begiraleek. Larunbatean, Zaindarien Astea zela eta, elizkizuna, jolasak —argazkian, altxorren bila—, kirolak, eta merienda izan zituzten, giro jatorrean. Igandean, eta Kalasanz Eguna aitzaki, topaketa berezia egin zuten: Bilboko, Iruñeko, Gasteizko, Tafallako eta Tolosako 130 haur eta begirale elkartu ziren. KIRIKIÑO



KULTURA ▶

Ekitaldi ugari, urte zaharrari agur esateko

Kultur eskaintza zabala egin du Udalak abendurako; txotxongiloak orain nagusi

IRATXE ETXEBESTE

Txotxongiloen bueltan hasi den hilabete honetarako kultur eskaintza zabala egin du Tolosako Udalak. Askotariko ekitaldiak izango dira urte berria, 2005a, bitarte, eta, jakina, herri guztia hartu duten sokazko panpin horiek itxurazko saioak eskainiko dituzte jatorrizko lekura heldu artean. Gainerako ekimenak honakoak dira:

ANTZERKIA

'Cocidito madrileño'. Hilaren 10ean, ostiralez, eskainiko dute antzezlan hori Leidor aretoan 20:00etan eta 22:30ean.

AZOKAK

Gabonetakoa. XV. Gabonetako Azoka Berezia hilaren 18an egingo dute, herriko hainbat gunetan, goizetik eguerdira. Tolosako Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko departamentuak antolatuta.

Merkatu Txikia. Laskorain

ikastolak antolatzen duen elkartasunezko Merkatu Txikia hilaren 22tik urtarrilaren 6ra izango da zabalik; Gabonetako oporraldian, hain zuzen, Kultur Etxearen behealdean.

ERAKUSKETAK

Txotxongiloak. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko erakusketak Aranburu Jauregian izango da ikusgai, hilaren 5a bitarte, arratsalde, ohiko ordutegian: 17:30etik 20:30era, hain zuzen ere.

GABONAK

Haur parkea. Beotibar pilotalekuan jarriko dute aurtengabonetako Haur Parkea Udaleko Gazteria departamentuak antolatuta. Hilaren 22tik urtarrilaren 3ra izango da zabalik.

Olenzeroren etorrera. Olenzeroren etorrera ospatzeko, kalejira egingo dute hilaren 24ean eta harrera Berdura plazan, Udaleko Gazteria departamentuaren eskutik.

HITZALDIAK

Euskalgintza. *Euskalgintza hainbat iritzi* izeneko hitzaldia eskainiko du Udaleko Euskara departamentuak hilaren 16an. Ordua zehazteke da; udaletxe-ko batzar aretoan izango da.

JARDUNALDIAK

Gazte Topagunea. Gabonetan programazio berezia izango da Gazte Topagunean. Gazte Astea antolatuko dutelako. Orhar, larunbat eta igandeetan, 16:30etik 20:30era da zabalik.

Eskerrak zuri. Galtzaundi Euskara Elkarrekin antolatutako sari banaketa hilaren 17an izango da udaletxe-ko batzar aretoan. Aurrerago zehaztuko dute ekitaldiaren ordua.

MUSIKA

Isidro Larrañaga. Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleek Eguberrietako emanaldia eskainiko dute hilaren 17an, Leidorren. Ordua zehazteke.

Black Heritage Singers. Gospel kontzertua eskainiko dute Black Heritage Singers-eko kideek Leidor zinema antzokian 22an 20:00etatik aurrera.

Tolosako Orfeoia. Tolosako Orfeoia Eguberrietako kontzertua eskainiko du hilaren 23an, ostegun, Leidor zinema antzokian. Ordua ez dago zehaztuta oraindik.

Tolosako Musika Banda. Tolosako Musika Bandak Gabonetako kontzertua eta kalejira eskainiko du hilaren 24an herriko kaleetan zehar. Kontzertua

eguerdian izango da, eta kalejira 20:00etan Gorriti plazatik.

Tolosako Musika Banda. Tolosako Musika Bandak kalejira eskainiko du hilaren 31n Alde Zaharrean, Gorriti plazatik 20:00etan abiatuta.

PAILAZOAK

Poxpolo eta Mokolo. Poxpolo eta Mokolo pailazoak emanaldia eskainiko dute hilaren 31n Leidor zinema antzokian.

PROIEKZIOAK

'Basajaunaren ametsa'. Aranzadi Zientzi Elkarrekin antolatuta, *Basajaunaren ametsa* DVDaren aurkezpena egingo dute hilaren 21ean Kultur Etxean. Ingurumena gai hartuta egin dute ikus-entzunezkoa Aranzadikoei, eta proiektio horretara inguratzen diren guztiei DVD bana emango diete. 19:00etan hasiko da saioa.

'Tolosa begi bistan'. Tolosa 750. urteurrena Fundazioak egindako *Tolosa begi bistan* ikus-entzunezkoa, DVDa, hilaren 9an aurkeztuko dute Leidor aretoan, 20:00etatik aurrera. Gonbidapenak jasotzeko Kultur Etxera jo behar da.

TXOTXONGILOAK

Txotxongilo Jaialdia. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia hilaren 5a bitarte izango da herriko gunen ezberdinetan.

ZINE-KLUBA

'Una película hablada'. Ma-



Txotxongiloak, Tolosan. HITZA

noel de Oliveira zinema zuzendariaren filma hilaren 9an eskainiko dute, Leidor zinema aretoan, 21:30etik aurrera.

'Memories of murder'. Bony Joon-hoo zinema zuzendariak gidatutako filmak zuzendari-tzak emandako Zilarrezko Kontxa eta FIPRESCI saria eskuratu ditu, besteak beste, Donostiako Zinemaldian 2003an, eta Leidor zinema antzokian eskainiko dute, hilaren 16an, 21:30etik aurrera.

'Open range'. Kevin Costnerren filma hilaren 23an eskainiko dute, Leidor zinema aretoan, 21:30etik aurrera.

'Las invasiones barbaras'. Hilaren 30ean, ostegun, eskainiko dute Leidorren Denys Arcand zuzendariaren filma. Publikoaren saria (Valladolid, Espainia 2003), bigarren mailako emakumezko aktoreari saria eta gidoi onenari saria (Cannes 2003) lortu ditu, esaterako. 21:30ean izango da filma.

ZINEMA

Tinko. Tinko, zinema euskaraz. Hilaren 17an, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, Leidorren.

ARETO FUTBOLA ▶

Piti Pascual liderraren aurkako partidu garrantzitsuan huts egin du Laskorainek

Aukera polita zuten lehenari min egiteko; 4 eta 3 galdu zuten, ordea

I. ETXEBESTE

Nahiz eta partida oso txukuna jokatu, Laskorain ikastolako mutilek ez zuten asmatu denboraldiko «morgehiagoka klabe» horietako batean garaipena erdiesten. Aurreko urteetan bezalaxe, zorrea, fedea eta txapeldun sena bezalako kontzeptu abstraktu baina garrantzitsuak ez ziren Laskoraineko jokalarien artean ernalduta, eta horiek gabe «sobera zaila izaten da jite honetako hil ala biziko guda batean arrakastatsu, hots, bizirik irteatea», esan du Mikel Altunak.

Urteroko jomuga den lehen posturako bidea maldaz gora jarri den arren, horitxoek ez dute bururik jaitsi behar eta borrokan jarraitzea besterik ez zaie geratzen. 2004-2005 denboraldiko eleberriaren lehenengo kapituluak idatzi dituen patuak, baina tinta litro eta orri pilo ugari geratzen zaizkio oraindik askaerara iristeko.

Elkarrenganako begirune deigarriarekin ekin zioten partidari bi taldeek joan den igandean. Basauritarrak izan ziren ikastolakoen atearan inguruan zokomiran ibili zirenak lehenengo minutuetan, baina «as-

teburua gaixorik pasatu zuen Domentxe goiargituak saiakera guztiak bertan behara utzi zituen geldiketa ikusgarriekin». Atsedendira iristeko minutu eskas falta zenean, Altunak asmatu zuen bizkaitarren atea zulatzen, golaren ostean muxu bat jaurtiki zuelarik harmailetara. «Nork jaso ote zuen? Bere bihotza behituta daukan printzesak, agian? Baliteke». Altunak berak egindako adierazpenak dira horiek.

Kontuak kontu, ez zuen gehiegia iraun horitxoek poztasunak, berehala lortu baitzuten berdinketa Piti Pascualekoek.

Gauzak honela, bigarren zatirri berdinketarekin ekin zioten, baina oraingo honetan bizkaitarrak izan ziren markagailuan aurrea hartu zutenak, Laskoraineko kementa ukituta utzi zuten bi golei esker.

Hala ere, «Yustos hazitarakoaren» gol batek itxaropena esnarazi zuen horitxoek artean. Altunak bere hanketan izan zuen hirunakoa, baina baloia zueruetara bidali zuen. Ez ordea aierru gogaikaridun basauritarrak 6 zenbakiak, 4 eta 2koa sartu zuelarik hurrengo jokal-dian tolosarren nahigabera. Neurketa amaitzeko segundo baten faltan Saldias hirugarrena igo zuen markagailura, azken 4 eta 3koa ezarri.

Zorrea, fedea eta txapeldun senak oraindik laguntzen ez dieten Egizabal entrenatzailea, Saldias delegatua eta Amatriain, Alonso, Altuna, Barriola, Domentxe, Eki, Gil, Murgi, Sal-

dias, Telletxea, Urko eta Yustos jokalariek aritu ziren Laskorainen alde borrokan Basaurin.

Beha mailakoak ere antzera

Lehenbailehen ahaztu eta gainditu beharreko asteburu beltza izan da «Laskorain familiarentzat», azpiko talde guztiek ere galdu egin dutelako. Hala ere, berri onik ere izan da: alde batetik, «Eki galaktiko proiektuaren estreinaldia eta Murgi mikolasaren itzulera lehenengo taldera». Bestetik, Laskorain Kirol Elkartearen webgunearan garapena. Laster egongo da erabilgarri areto futbol taldekoen web orrialdea Interneten. «Laskorainzale guztion parte-hartzea ezinbestekoa izango da proiektu honen ezarri ditugun helburuak bete ditzan. Eskerrik asko aldez aurretik. Joango gatazkaizkie berri ematen».

ZIZURKIL ▶

Modes Iraola,
Euskadiko
txapelkun

Modes Iraola zizurkildarrak garaipenak lortzen jarraitzen du. Azkenekoa pasa den igandean lortutako Euskadiko Txapelketa. Iraolak ehiza txikia txakurrarekin kategorian parte hartu zuen. *Heldo* izeneko txakurrarekin hiru eper eta faisai bat ehizatu zituen El Castillon egin zen txapelketan. Bigarren postuan Mari Jose Carretero tolosarra sailkatu zen.

ANOETA ▶

Abraham Peñak
Agirrezabalari
omenaldia

Abraham Peñako kideek omenaldia eskaini zioten Joseba Agirrezabala txirringulari anoetarrari. Benta Aldea jabetxean elkartu ziren hogeit lagun inguru giro onean. Afa-riaren ondoren oroigarria eman zion Abraham Olanok kirolari gazteari. Joseba Agirrezabalak Espainiako Txapelketa irabazi zuen, 23 urte azpiko mailan, San Vicente de la Barqueran.



Agirrezabala Olanoren eskutik oroigarria jasotzen. HITZA

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

DJ eta kamiseta
tintaketa tailerrak
gazteentzat

Villabona eta Zizurkilgo udalak bi ikastaro antolatu dituzte gazteentzako. DJ tailerra abenduaren 15ean hasiko da eta sei hilabete iraungo du. Gutxieneko adina 18 urtekoa da eta ikastaroaren prezioa 72 eurokoa. Kamiseta tintaketa tailerra abenduaren 9, 17 eta 23an izango da. 14 eta 20 urte bitartekoei zuzendutako dago eta prezioa 10 eurokoa da.

VILLABONA ▶ HISTORIA

IMANOL GARCIA

Amasa-Villabonaren historia eta ohiturak jasoko dituen *Lumane* aldizkaria abian jarri du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Aldizkaria aurkezteko udaletxean izan ziren Bakartxo Tejeria alkatea, Arantxa Urkizu Kultur Bazkuneko kidea eta Ainhoa Arozena aldizkari-ko arduraduna.

Lumaneren 0 zenbakia azaroaren lehen asteburuan banatu zen eta bertan aurkeztu ziren proiektu honetan parte hartu duten hamasei gizon-emakume edadetuak. Beraiei esker biltzen joan dira informazioa proiektuko bultzatzaileak. Aldizkariaren lehenengo zenbakia asteburu honetan banatuko da, hainbat okindegi eta prentsa dendetan.

Aldizkariaren izenak ere bere historia du. *Lumane* izena baitzuen Amasa eta Villabona artean zegoen baserria.

Paperean idatzi

«Manuel Larramendi Kultur Bazkunak proiektu eta lan asko egiten ditu euskararen alde», azaldu zuen Bakartxo Tejeriak. «Orain historia berreskuratu eta aldizkari honen bitartez zabandu eta ezagutzera emango du. Ez da nahikoa izaten historia ahoz aho ematea, eta *Lumane* posible egiten du historia hori idatzita egotea».

Bestalde, Udalaren aldetik horrelako proiektuek laguntza jasoko dutela adierazi zuen alkateak: «Esan daiteke 0 zenbakiak ikusmin handia eragin dula herrian eta gure aldetik behintzat beti egongo gara horrelako proiektuak bultzatzeko prest, oso garrantzitsuak iruditzen zaizkigulako». Proiektuak 2.728,26 euroko diru laguntza jaso du Euskara Batzordetik aurtengo urterako.

Orain sei urte egitasmo berdina bultzatu zuen Manuel La-

‘Lumane’ aldizkariak herriko historia eta ohiturak jasoko ditu

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren egitasmoa da; lehenengo zenbakia asteburu honetan banatuko da



Ainhoa Arozena, Bakartxo Tejeria eta Arantxa Urkizu, Lumane aldizkariaren aurkezpenean. I. GARCIA

ramendi Kultur Bazkunak Andoainean. «Han izan zuen harre-rra ona ikusita, Amasa-Villabonan saiakera berdina egite-rra goaz, herri baten historia jasotzeko modurik egokiena herritarren ahotsak biltzea dela ikusita», azaldu zuen Arantxa Urkizuk.

Guztira hogeit zerbaki aterako dira, hainbat gai ezberdin jorratuz: baserria, eskola, erlijioa, jai egunak, lanbide zahar-rrak, errebotea... Azken bi zen-

bakietan Gerra Zibila eta gerraren ondorengo garaia islatatuko dira.

Musika hizpide

Lumane aldizkaria hilabetero dohainik banatuko da, hileko lehen asteburuan, bai larunbat-ean eta bai igandean, zortzi okindegi eta prentsa dendetan. Ainhoa Arozena da arduraduna eta testuak idazten ditue-ria; Xabier Ubeda da argazkila-

ria eta maketazio lanean Maddi Trutxuelo aritzen da.

Asteburu honetan banatuko den lehenengo zenbakian musikaren gaia jorratuko da. Musikak Amasa-Villabonan izan duen garrantzia aztertuko da bertan eta herritarren hainbat pasadizo bilduko dira. Ale guztiak bezala, zortzi orrikoa izango da eta parte-hartzaileen adierazpenez gain, euren egungo argazkiak eta garai bar-tekoak azalduko dira.



Aldizkariaren 0 zenbakia. HITZA

DATUAK ▶

PARTE-HARTZAILEAK

Maria Luisa Zalakain.
Isabel Beraza.
Anjelito Ugarte.
Martitxu Mendizabal.
Anjel Egiño.
Martin Laskurain.
Migel Lertxundi.
Pakita Laso.
Joxe Ugartemendia.
Jabier Berasaluze.
Maritxu Gonzalez.
Roberto Garate.
Pedro Arratibel.
Encarna Yarza.
Pello Iribar.
Pepita Laso.

NON ESKURATU

Kixubi.
Kale Nagusiko Labezain.
Arroako Labezain.
Ogi-goxo.
Kazetaria.
Larrea.
Roteta.
Mirari.

Hamasei parte-hartzaileekin bilerak egiten dira hilean behin, zortziko bi taldeetan banatuta. Mahainguruotan gai ezberdinei buruz aritzen dira solasean eta horrela biltzen da aldizkarirako informazioa.

MARIAN GALARRAGA ▶ TINKO EUSKARA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Areto komertzialetan filma guztiak euskaraz ikustea da gure helburua»

Anton Abbadia saria jasoko du gaur Marian Galarragak, Tinko Euskara Elkarteko lehendakaria; saria «bide onetik joatearen seinale» dela azaldu du altzotarrak



TINKO EUSKARA ELKARTEA

OLAIA ESKITXABEL

Tinko Euskara Elkartea jaso du gaur aurtengo Anton Abbadia saria Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian egingo den ekitaldian; Marian Galarraga, elkartearen lehendakaria, izango da saria jasoko duena. Sariaren garrantzia, Tinko Elkartearen lanaz... hitz egiteko aukera izan du HIRZA-k «txiki-txikitatik euskari duintasuna ematen» saiatu den altzotarrarekin.

Zein helbururekin sortu zen Tinko Euskara Elkartea?

Elkartea orain dela hamaika urte inguru sortu zen; ogibidez bikoizlea izanda, 80. hamarkada inguruan, euskarazko telebista katea sortzera zihoala entzun nuen bezain laister hor sartzen lehenengotakoa izan nintzen. Geroztik, beste hainbat bikoizleen irakasle izan naiz. Lan horretan ari nintzela, telebistan ezetik, zinema aretoetan ere filmak euskaraz eskaintzeko ideari bueltaka hasi nintzen, areto komertzialetan euskarazko filmak egoteko proiektuarekin, alegia. Eusko Jaurlaritzara joan eta proiektua azaldu nuenean, bidera ezina zela esan zidaten.

Baina ez zenuen etsi.

Ezta pentsatu ere; oso egoskorra naiz. Bidea zuzenean egin ezin zela ikusita, zeharka egitea erabaki genuen. Horrela, areto komertzialetan izan be-

harrean, euskarazko filmak eskola orduetan estreinatzea erabaki genuen. Momentu horretan sortu zen Tinko Euskara Elkartea. Pixkanaka-pixkanaka eskolekin, Udalekin... harremanak egiten hasi ginen. Garai hartan Kultura sailburua zen Iñaxio Oliverik ere diru-laguntza eman zion elkarteari. Bera izan zen, Institutio mailan, proiektuan sinistu eta beharrezkotzat jo zuen lehena.

Zailtasunak-zailtasun aurrerapausuak ematen hasi zintezten, ezta?

Martxan jarri ginen eta handik gutxira, Kultura Sailak aretoetan estreinatzeko diru-laguntza eman zuen. Gorpila bueltak ematen hasi zen eta dagoeneko ezin da geratu; hilerio euskarazko filma bat estreinatzen dugu.

Donostiako zinemaldiaren laguntza ere izan duzue, ezta?

Zinemaldiko zuzendaria den Mikel Olaziregirekin harreman ona daukagu eta bere bitartez aurkeztuz gero, banatzaileen harrera oso bestelakoa dela ikusi dugu. Zinemaldiak duen sona dela-eta, banatzaileei ongi geratzea komeni zaie. Euskarazko filmak ikustera, 15.000 haur inguru gerturaten dira.

Hamaika urteko ibilbidean oztopoak ere izango zenituzten, ezta?

Tinko elkartearen ibilbidea Ezina ekinez egina esaldiak laburbiltzen du; nekez egin dugu

aurrera. Oztopo ugari egon dira eta daude egun baina oztopo bakoitzeko lagun bat topatu dugu. Amore ematekotan egon garenean, beti izan dugu aurrera egiteko indarra eman digun zerbait.

Batez ere, haurrentzako filmak estreinatzen dituzue, zergatik?

Gurekin hezitu diren haurrak gaztetxoak dira egun. Horiek ohituta daude euskarazko filmak ikusten, beraz, helduak izatera iristen euskaraz kontsumitzeko beharra eta nahia izango dute.

Zein da egun elkarteak duen erronkarik nagusiena?

Dudarik gabe, promozioa. Gaztelarazko filmak Espainiatik Euskal Herrira iristen direnean promozio handia izaten dute. Euskarazko filmetan, ETB-rekin promozio akordioa eginda badaukagu ere, ez da nahikoa. Baina ez da erronka bakarra, ezta?

Areto komertzialetan filma guztiak euskaraz ikustea da gure helburua. Hogei urte barru, amets hori egi bihurtzea nahiko nuke, horrek herritar guztiak euskaraz hitz egin eta erabiltzen dutela esan nahiko bailuke. Eta ez dugu etsiko; ez diogu lekukoa inori pasako; zirikatzan jarraituko dugu eta zelatan egongo gara, zer pasako zain.

Anton Abbadia saria lortzeko zer suposatzen du?

ZAILTASUNAK

«Amore ematekotan egon garenean, beti izan dugu aurrera egiteko indarra eman digun zerbait»

SARIA

«Anton Abbadia saria jasotzea, inguru honetan, Nobel edo Oscar saria jasotzearen pareko da»

ESKERRAK

«Motorra Tinko elkartearen izan bada ere, inguruan lanean ari diren guztientzat izango dira eskertza hitzak»

Asko. Anton Abbadia saria jasotzea, inguru honetan, Nobel edo Oscar saria jasotzearen pareko da guretzat; euskararen alorrean jaso daitekeen saririk garrantzitsuenetakoa da. Bide onetik goazen seinale. Egin duguna egin beharra zegoelako egin dugu; ez dugu ezer berezirik egin. Baina norbaitek egin duguna errekonozitzeak asko esan nahi du.

Ez zenuen espero, gainera. Sariaren berri ematen den ekitaldira urtero joaten naiz; eta behin edo behin pentsatu dut urteren batetan saria Tinkok jasoko zuela. Baina, nik 120 urte inguru izandakoa edo; ez nuen espero hain azkar izatea. Gainera, ez genekien hautagaien artean geundenik ere; pentsa zein sorpresa hartu dugun.

Biharko ekitaldian, norentzako izango dira eskertza hitzak?

Saria oso banatuta dago; dezi-moak Euskal Herriko txoko askotan banatuta daude. Motorra Tinko izan bada ere, inguruan lanean ari diren guztientzat izango dira eskertza hitzak. Elkartearen nire lankideei ere egiten duten lana eskertzea gustatuko litzaidake, izan ere, berariaz gabe ez genuke aurrera egingo.

ALEGIA ▶

Pirritx eta Porrotx Kultur Etxean, datorren astean

Abenduaren 10ean Kiroldegi ondoko aretoan aurkeztuko dute Pirritx eta Porrotx pailazoak *Patata*, *patata* beren azken ikuskizuna. Bertan, Saharako basamortu urrunetik iritsiko diren pailazoek lagun berri bat aurkeztuko dute: Tider. Alegiako Udalak eta Galteazundi Euskara Taldeak antolatutako emanaldi hori, 16:30ean hasiko da; txartelak bost euroko salneurria dute eta salgai aurkitzen dira udaletxean eta Galtzaundin.

AMEZKETA ▶

Herri-bilera, bihar, Ametzak-ek deituta

2003ko udal hauteskundeetan «herritarrek erabaki zuten errespetatu eta arazo horri irtenbidea bilatu nahian aurrerapausoak eman direla-eta», plangintza zehaztu eta zer egin eztabaidatzeko herri-bilera deitu du Ametzak taldeak biharko. Izan ere, «hauteskundeetan Ametzak taldea izan zen bozka gehien jaso zuen udal taldea baina oraindik ez du udalean erabakiak hartzeko aukerarik», azaldu dute taldekideek. Herri bilera, 20:30ean izango da gela balioantzean; Ametzak taldeak «herritar guztien parte-hartzea» eskatu du.

ORENDAIN ▶

Gizarte zerbitzuak hizpide, bihar

Hurkoa Fundazioak Adinekoei eta Gizarte zerbitzuei buruzko hitzaldia antolatu du biharko; bertan, besteak beste, gizarte zerbitzuek adinekoen gaiekiko duten arduraz azalduko du, Agurtzane Lopetegik, udaletxeak gizarte laguntzaileak. Saioa Erretore Etxean izango da 16:00etan. «Herritar guztiak hitzaldian parte hartzera» gonbidatu ditu Hurkoa Fundazioak.



ESKERTZA ▶

JOSE IGNACIO MURU LULUAGA jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agura bidali zenuen eta hileta elizkizunetara etorri zintezten guztiok.

Alegia, 2004ko abenduaren 1a

BERASTEGI ▶ HEZKUNTZA

Nola hezi nire haurra?

Guraso Elkarteak haurren heziketaren inguruko saioak antolatu ditu, Jose Francisco Amiama da irakaslea eta oso gustura agertu dira ikasleak

MADDI SOROA

Duela 18 urte inguru sortu zen Berastegiko Guraso Elkarte. Herriko lehen elkarte izan zen eta oraindik ere martxan darrak, indar handiarekin gainera. Hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar haurrentzat nahiz gurasoentzat. Haurren kasuan, solfeo, instrumentuak, dantza eta beste hainbat aukera eskaintzen ditu. Gurasoen kasuan, berriz, euskara, aerobik, mantenu gimnasia, hitzaldiak eta beste aukerak daude. Aurtengoan, ordea, Guraso Eskola antolatu du Guraso Elkarteak.

Elixabet Azpiroz Guraso Elkartearen lehendakaria, sorreraren inguruan azaldukoaren arabera «urtero antolatzen genituen hitzaldiak, baina aurreko urtean Jose Francisco Amiamarekin jarraian egindako hiru hitzaldi antolatu genituen eta arrakasta handia izan zuten. Izugarri gustatu zitzaizgun Amiamak hitzaldiak emateko zuen era, oso hitzun ona eta dinamikoak baita. Hiru saioekin, ordea, motz geratu ginen eta berarekin hitz egin ostean, Guraso Eskolak ongi zeudela azaldu zigun». Horrela sortu zen beraz, Guraso Eskola.

Berastegiko lagun askok, Guraso Eskola HHI —Helduentzako Heziketa Iraunkorra— zela uste zuen, eta halaxe gertatzen da beste herrietan ere. Elkarte, ordea, ezjakintasun horretaz ohartu eta Guraso Eskola zer den azaldu zien herriarrei idatzi baten bitartez. Era horretan, Guraso Eskola zer den jakin eta ezagutzeko.

Zer da Guraso Eskola?

Guraso Eskola seme-alaben inguruko hainbat gaitaz eztabaidatu eta hausnartzeko gunea



Jose Francisco Amiama eta Guraso Eskolako kideak astelehenero saioan. MADDI SOROA

JOSE FRANCISCO AMIAMA ▶ PSIKOPEDAGOGOA

«Diziplina landu behar du gizarteak»

Jose Francisco Amiama tolosarra da baina Villabonan bizi da. Magisteritza ikasketak egin zituen eta Atzegin aritu zen urte askotan lanean. Gero psikopedagogia ikasi, gustatu eta horretan dihardu azken urteetan.

Zein da saioen antolaketa?

3 zatitan banatzen dituzte saioak. Lehen 20 minututan etxeko lanak lantzen ditugu. Oso garrantzitsua da, ikasitakoa etxean ere landu behar baita. Ondoren, gurasoak arduratzen dituen gaiak lantzen ditugu. Amaitzeko, komunikazio munda lantzen dugu. Guraso Eskolan, komunikazioa nola landu ikasten da. Lehenik estimulazioak lantzen ditugu, gero gauza negatiboak. Joan aurre-

tik, hurrengo saiorako etxeko lana planteatzen da.

Nolako erantzuna izan dute ikasleak?

Berastegiko kasuan, sinistu egiten dute Eskolan eta hori da garrantzitsua, oso erantzun ona izan dute. Orokorrean ere ona, Guraso Eskola berriak sortzen ari dira, behar berri bat sortu baita gizarteak.

Zein izango da 10 saioen azken emaitza?

Prozesu oso pertsonala da, zeren pertsona eta familia bakoitzak oso ezberdina da. Askotan pentsatzen dugu kristoren aldaketa egin behar dela, baina aldaketa txiki batek izugarriko eragina izan dezake. Azken finean, erreflexionatzea eta

gauza berriak probatzea da helburua. Guk obediendiaz ikasi dugu, baina, gaur egun haurrak autonomo eta erantzuleak izatea nahi dugu. Gauzak aldatu egin dira, eta Guraso Eskola horretarako dago, nola egin erakusteko.

Zer hobetu daiteke gizarteak?

Gaur egun landu behar dena diziplina da. Pertsona guztiak behar dituzte mugak, ezin da beti baietz edo ezetz esan guztirai. Aspektu horretan galdu egin gara, izan ere, ez da traumatikoa baietz edo ezetz esatea, nahiz eta hori uste dugun. Bestalde, zein balore eta zein gauza transmititzen ari garen kontuan hartzeko da. ◀

da eta haurren heziketaz arduraturik dauden guraso guztiei dago zuzendua. Asteleheneran elkartzen dira 21:00etatik 22:30era. 15 lagun dira Guraso Eskolara joaten direnak, 5 gizon eta 10 emakume, hain zuzen ere. Denak ere, 12 urte bitarteko haurren gurasoak direla. Guztiek, Jose Francisco Amiama pedagogoa dute irakasle.

Guraso Eskola ez da hitzaldi bat, saio eta gai ezberdinez osaturiko eztabaida multzoa baizik. Bertan, aurretik sorturiko kezak, ezinak, dudak... eztabaidatzen dira. Elixabet Azpiroz Guraso Elkartearen lehendakaria izateaz gain, ordea, Guraso Eskolako kidea ere bada, eta zera azaldu du «Guraso Eskolak terapiaren itxura hartzen du askotan, izan ere, guraso bakoitzak bere esperientzia kontatzen du eta zuk arazo bera baduzu, identifikatuta sentitzen zara. Horrek asko laguntzen du, izan ere, beste norbaitek zure arazo bera duela konturatzen zarenean asko lasaitzen baitzara».

Azken finean, Guraso Eskola sortzearen helburu nagusia, haurren hezkuntzaren inguruan gurasoek izaten dituzten kezak nola bideratu eta egoera ezberdinen aurrean nola jokatu jakitea da.

Guraso Eskolak 10 saio antolatu ditu guztira. Pasa den astelehenean, azaroaren 22an izan zen lehenengo saioa. Azpirozek azaldu duenaren arabera, «lehenengo saio hartan ikusarazi zigun gurasoen garaitik hona zenbat aldatu diren gauzak. Aldaketa horren inguruan mintzatu ginen. Adibide errealek batzuk jarri zitzaizkion, eta guk egoera horietan nola jokatzeko dugun aztertu genuen. Gure burua aztertu genuen, zein gauza egin eta esaten ditugun».

Azpirozek esandakoaren arabera, oso gustura dabilta herrietarrek Guraso Eskolan eta asko ikasi dutela eta ikasiko dutela ziurtatu du gainera.

Gogoratu, Guraso Eskolan izena emateko epea zabalik dagoela oraindik.

iragarki laburrak ▶



Aizarnazabal. Txakolin saila duen 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxea egiteko aukera.
Anoeta. 125 m² eta garajea duen duplex etxebizitza ederra salgai.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berriak.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal

ustiapenerako egokia.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza salgai.

Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Lizartza. Hiru solairuko baserria 50 m²-ko bordarekin, 100 m² solairu bakoitzean eta 30.000 m²-ko lursaila. Berritzeko.

Tolosa. San Esteban auzoan,

76 m²-ko etxebizitza dago salgai.

Hiru fatxada ditu, altzariekin eta oso eguzkitsua da.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko. Telefonoa: 943 65 55 87.

LEITZA ▶ UDALA

Gai zalantzagarriak suertatuz aztertzeotan utzi dituzte

Bestalde, IKA euskaltegiak aurkeztu mozia aho batez onetsi da, baina ez osoan

JAIONE ASTIBIA

«Barriola eta Olaizolaren partidua hasterako» bukatzeko bazuten ere, ez zuten hala egin, ostiralean udalbatzarrean bildu zirenek. Ez zituzten gai gehiegi aztertzeotan, baina eztabaidatsua bai zenbait, han ikusi zenaren arabera.

Horrela, hainbat punturen gaineko erabakiak mahai gainean, aurreragoko, gelditu ziren, gaia gehiago aztertu ondoren hartzeotan. Gauzak horrela, esate baterako kirol azpiegituren kudeaketaren esleipen prozesuari zegokionez, baldintza-plika zehatzago ikustatzeko gelditu ziren; Maloko egur lotearen esleipenaren negoziazio-prozeduraz zalan-tzak sortu zitzaizkionez, hau ere gerorako utzi zuten; eta hirigintzari zegokion partikular baten eskaera ere halaxe gelditu zen, kasu honetan erai-kuntza berri baten inguruan horren aurkako helegite bat eta bi proposamen desberdin izanik mahai gainean, aztertzeotan denbora gehigo hartzeko erabakia hartu zuten.

Baina erabakiak hartu ere hartu zituzten, bide zati bat zabalteko egindako partikular



Kirol instalazioen kudeaketarako baldintza-plika zehatzago aztertu eta begiratzeko asmoz, onartzeko gelditu zen ostiralean. J. ASTIBIA

baten eskaera atzera botatzeko hartutako kasu. Gainera aipatzeko da, bitxikeria modura, alkateak izaten duen kalitateko bozka erabiliz hartu zutela erabaki hau, bozketan berdinketa egon zelako.

Ez zen horren beharrik izan, kirol instalazioen erabilpen tasak eta ur-belarrei dagozkien zergak onartzerakoan, ez eta Nafarroako Gobernuak 2005erako proposatu dituen aurrekontuetan, euskalgintza-

ra bideratuko zukeen partidari iragarritako murrizketa dela eta, Leitzako IKA euskaltegiak sartutako mozia onartzerakoan, aho batez egin baitzuten.

Azken horretan, jakina da Nafarroako Gobernuak zehazki euskaltegi eta gau-eskoletakoari erreparaturik %65,98rainoko murrizketak iragarri dituela bere proposamenean, ondorioz «Leitzako Udalak bere kezka» adierazi zuen gai honen inguruan, IKA euskalte-

giak aurkeztu mozia zioenari jarraiki, aurrekontu-proposamen hori burutuko litzatekeen kasuan «bere bideragarritasun ekonomikoa kolokan» jarriko litzatekeela erantsiz. Bide batez, IKA euskaltegiak «azken 15 urte hauetan Udal honekin elkarlanean Leitzan egin duen lana jendaurrean aitortu» eta Nafarroako Gobernuaren aurrean bitartekaritza lana egitea onartu zuten ere «alderdi politikoei Nafarroako IKAK eta AEKak helerazi dieten 2005eko aurrekontuen gaineko proposamena aintzat hartu eta aurrera ateratzeko ahaleginak», egiteko eskatuz, mozioak zioen moduan eta guztiei honen berri emanez, baita Luis Campoy, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Kontseilariari ere.

Puntu honetan, ordea, mozia ez zen aurkeztu bezala onartu. Hain zuzen ere, UPN taldeak proposatuta, honen berri hedabideetan emateko eskazikuna kenduta onartu baitzuten, han hartu zuten erabaki publikoan. Mahaian zeuden guztiak ados agertu ziren horrek. Kontseilariari bilera eskatzeko akordioa ere hartu zuten, beren ekimenez.

AISIA ▶

Areso eta Leitzan haur-aisialdirako hiru begirale behar dira Eguberritarako

Interesatuak gaurtik hasita, hurrengo 14a arte, aurkez ditzakete beren proposamenak

J. ASTIBIA

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak haurrentzat aisialdi tailerak antolatuko ditu Areson eta Leitzan, Eguberritarako. Horretarako hiru begirale behar ditu.

Parte hartu nahi duenak, izena ematerakoan, bi asterako programazioa aurrez prestatu eta aurkeztu beharko du. Oso-tara 18 ordutarako egitaraua da aurkeztu behar dena, aurtengo ikasturtean, Eguberrita-

ko oporrak hilaren 23tik ilbeltzaren 9ra artekoak direla jakinik eta bi herrietako haurrentzat, Aresokoentzat eta Leitzakoentzat bideratutakoak izan behar duela kontutan hartuta. Banaka edo taldeka egin daiteke proposamena, 18 urtez goikoak eta euskaldunak izanez gero beti ere, noski.

Epea bukatu eta jasotako proposamen guztien artean Euskara Zerbitzuak bere iduriko hoberena dena aukeratu omen du. Gerta liteke, banaka-



Eguberritarako oporretan eserita egoteko betarik ez dute izanen. J. ASTIBIA

koren bat aukeratzea. Kasu honetan bigarren geldituko litzatekeen banakako edo taldekoekin beteko omen lirake, hiru begiraleen lekuak.

Hortaz, lan horretan ari nahi duenak izena emateko epea zabalik du jada, gaurtik aurrera, hil honen 14a bitartean. Hori, Euskara Zerbitzuko bule-

goan, bai bertara joanez, bai 948 510 814 telefono zenbakira deituz edo <leitzaldeko@euskalnet.net> helbide elektronikoa erabiliz ere egin daiteke. Deialdi honi buruz informazio gehiago eskuratzeko goiko zenbaki horretara bertara deitekeela adierazi diote HITZARI bulegotik.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631 888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610 914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga A. Korreo 2

(Tolosa). 943 67 01 28

Erbiti. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 1a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aiztegiaketa, Adura, Abotzur, Aegia, Alkiza, Alzo, Amerieta,
Aranda, Balaizana, Beldarriz, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Irua,
Lumbal, Luchana, Luartak, Omeñaca, Omeñaca, Tolosa, Villavieja, Zuzakila
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurilaritza
Kultura Salla

Eusko
Jaurilaritza
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

9

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokian.

Tolosa. Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketari buruz. Jai Batzordearen bilera. Berrikuntzak daude eta parte-hartzaileen iritzia jasotzea garrantzitsua da. Kultur Etxean 19:00etan.

Tolosa. Izaskun auzoko Kultur Astea. *Fahrenheit 9/11* filma 19:00etan Otsabi elkartearen.

Tolosa. Inauterietako txosna batzordearen bilera. 19:00etan Ibarra Kultur Etxean.

Tolosa. EGA ikastaro berria hasi da Aitzol udal euskaltegian. Eskolak astean bitan izango dira, 17:30etik 19:30era. Izen-ematea euskaltegian.

Tolosa. Abenduaren 10ean *Cocidito madrileño* antzezlanaren estreinatuko da Leidorren 20:00etan eta 22:30ean. Sarrerak salgai daude Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Ibarra. San Bartolome jaietako argazkiak. Abenduaren 3a arte.

Tolosa. Isabel Mujikaren koadroak ikus daitezke Sorron koadro dendan.

Tolosa. Anselmo Elizalde margolariaren koadroak Fronton kafetegian.

Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramikak. Lanbroa tabernan.

TITIRIJAI

Tolosa. Kultur Etxea. 10:30, 15:00 eta 18:30. Kazaliste Licem U Lice (Kroazia): *Pulgarcita*.

Beotibar. 10:30 eta 15:00. Pitara Putli (India): *Swaagat-Festa Rajasthanen*.

Kasinoa. 11:00 eta 15:00. Asvinenea (Aduna): *Bi eta zazpi, edo zazpi eta bi*.

Leidor. 11:00, 15:00 eta 17:30. Marionetas de la esquina (Mexico): *Dibujame una vaca*.

Gorosabel. 12:00 eta 15:00. Poppenteater de Spiegel (Belgika): *Gran pepona, pequena pepona*.

Kasinoa (helduak). 20:30 eta 22:30. Mano y contramano (Mexico): *Ubu reciclado*.



Lehenengoetako belaunaldiko ikasleak afarian. HITZA



Giro ederra eta ikasle garaiko kontuak izan ziren nagusi. HITZA

Aspaldiko ikaskideak batuta

TOLOSA ▶ Laskorain Ikastolako 500 bat ikasle ohi elkartu ziren larunbatean Ferialekuan; bideoa eta musika izan ziren ekitaldian



Bostehun ikasle ohi inguru elkartu ziren larunbat gauean Tolosako Ferialekuan. HITZA

JOXEMI SAIZAR

Aspaldiko. Zenbat denbora ikusi gabe? izan zen esaldia errepikatuenetako koa larunbat gauean Tolosako

Ferialekuan. Laskorain Ikastolan ikasitako 500 bat lagun elkartu ziren afari-festan.

Ikastolaren 25. urtemugan antzeko zerbait egin zela eta, ikasle ohi batzuk animatu ziren

berriro antolatzen eta emaitza ezin hobea izan da. Belaunaldi desberdinetako ikasle ohi franko elkartu zen.

Sarrerak, arrai zopa, redondo eta postrearen ondoren

hasi zen festa. Lehendabizi ikasle ohi ezagun eta irakasle batzuen oroimenak jasotzen zituen bideoa ikusi ahal izan zen: Abraham Olan, Igor Jauregi, Edurne Pasaban eta Xabier Fernandez kirolariak, Nerea Alias eta Xabier Mendia teledibista aurkezleak, German Ormazabal eta Joni eta Imanol Ubeda musikariak, Onintza Lasa politikaria, Miren Lopez-Mendizabal ikasle ohi eta irakaslea, Emeterio, Maria Dolores, Kaxilda, Koldo Jauregi, Begoña Arrate, Antton, Xabier Aierza, Mikel, Itziar irakasleak eta Jose Martin zuzendaria. Makina bat pasadizo entzun —ez oso ondo— ahal izan zituzten han bildutakoek, denek gozamenaroko.

Ondoren musikaren txanda iritsi zen. Xabier eta Olatz arduratu ziren lehendabizi eta DJ Fer ondoren. Bitartean afaria serbitu zuten Batxilergo 2ko ikasleek txosna jarri zuten, edariak partitu eta ikasbidairako diru pixka bat lortzeko. Festa borobila izan zen! Hurren arte!

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ekain.

Gaur 4 urte.

Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Eneritz Jauregi (Ibarra).

Gaur urtebete. Familiaren partetik

zorionak, batez ere Beñafren partetik.



URTE ASKOAN

Maialen Sarasola (Tolosa).

Gaur 6 urte. Zorionak aitaren eta amaren partetik.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!